# Aurkezpena / Presentación

Mª Nieves Urrutia andrea, Eusko Ikaskuntzako Arabako Lehendakariordea, Jaun andreok: ongi etorri denoi.

Osasun Zientziak Saileko Lehendakaria nauzue. Hemen Eusko Ikaskuntzako Osasun Zientziak Saileko Seigarren Jardunaldiak ospatzeko bildu gara. Sei urtetan zehar honelako jaurdunaldiak prestatzen aritu gara, **"OSASUNA ETA GIZARTEA"** izenburuko zikloaren barruan. Lehenengoa, 1999ko urriaren 22an, Donostian ospatu genuen, Doping Kirola eta Osasunari buruz izan zena; bigarrena Bilbon izan zen, 2000ko urriaren 6an, Drogamenpekotasunari buruz; hirugarrena Iruñean, 2001ean, haurren zainketari buruz; laugarrena Donostian, 2002an, zahartzaroari buruz; iaz Bilbon, maiatzaren 6an, Ezintasunari eta Menpekotasunari buruz, eta aurten Elikadura osasuntsuari buruzkoa, Gasteizen egingo dugu.

Hainbat diziplinatako profesionalek Jardunaldi hauetan parte hartuko dute. Elikadura osasuntsua hainbat ikuspuntutik jarduko dugu hitzaldietan. Ondokoak izango ditugu hiru jardungai nagusiak: lenenengoa, obesitatea eta eritasun kardiobaskularraren prebentzioa haurtzaroan, jarraian giltzurruneko gaixoaren elikadura eta nutricioa eta bukatzeko gorputz irudia eta elikadura eta osasunarekin duen harremana. Espero dut, gai horiek zuentzat interesgarriak izango direla.

Doña Mª Nieves Urrutia, Vicepresidente de Álava de Eusko Ikaskuntza–Sociedad de Estudios Vascos, señoras y señores, bien venidos a estas Jornadas que organiza la de la Sección de Ciencias de la Salud de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

Como presidente de la Sección quisiera recordar el trabajo realizado por la misma en los últimos años. La Sección de Ciencias de la Salud lleva seis años organizando Jornadas de temas diversos bajo el título general "SALUD Y SOCIEDAD". La primera, sobre "Doping, deporte y salud", se realizó en Donostia, el 22 de octubre de 1999, la segunda, sobre "La problemática de la drogadicción", en Bilbo, el 2 de octubre de 2000, la tercera, sobre el "Cuidado del niño hospitalizado" en Iruña el año 2001, la cuarta se celebró bajo el título "De senectute-Acerca de la vejez" el año 2002 en Donostia, la quinta en Bilbao sobre el tema "Discapacidad y Dependencia" y este año, finalmente realizamos la reunión en Gasteiz, y el tema que se va a debatir es la alimentación saludable en nuestra sociedad.

Para ello contamos con profesionales de diferentes disciplinas que abordarán tres temas principalmente: el primero la obesidad y prevención de las enfermedades cardiovasculares desde la infancia, a continuación la alimentación y nutrición en el enfermo renal y por último la imagen corporal y su relación con la alimentación y la salud.

Esperamos que estas Jornadas sean interesantes y fructíferas para los asistentes y participantes.

Muchas gracias

Pedro Gorrotxategi
*Osasun Zientziak Saileko Lehendakaria*